

## MUNDU BAT BERTSO

---

Proiektu honen bidez, bertsolaritza saioak eskaintzen ditu Bertsozale Elkartek hezkuntza arautuan.

### *Proiektuaren ibilbidea:*

Nafarroan abiatu zen 1985ean, ikastetxeetatik jasotako eskariari erantzunez. Urteetako ibilbideari esker, euskararen eremu osora zabaldu gara: Lapurdin, Nafarroa Beherean, Zuberoan, Araban, Nafarroan, Bizkaian eta Gipuzkoan ikasturtero 29.000 ikaslek baino gehiagok lantzen du bertsolaritza ikastetxean, Bertsozale Elkarteko 45 irakasleren eskutik. 400 ikastetxe eta 200 udal ingururekin ari gara elkarlanean, egoera soziolinguistiko oso ezberdinetan. Helburua, **bertsolaritzaren bidez umeen hizkuntza gaitasunean eta, bereziki, ahozotasunean eragitea da.**



**69 HERRI**  
**204 IKASTETXE**  
**10.000 IKASLE**

Bizkaian, zehazki, 69 herritan lantzen dugu bertsolaritza 204 ikastetxetako 10.000 ikaslerekin. Bizkaiko Bertsozale Elkarteko 20 irakaslek esku-hartzen dute ikasgeletan. Bidelagun ditugu zentro publikoak, ikastolak, zein kristau eskolak. Gure ikasmaterialak 2011. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren Ixaka Lopez Mendizabal Saria jaso zuen.

## Helburu nagusiak:

- Ikasleei dagokienez:
  - Bertsolaritzaren oinarrizko ezagutza izatea eta zaletasuna piztea.
  - Euskararekiko jarrera positiboa indartzea eta hizkuntza komunikaziorako kompetentzia (bereziki ahozkotasuna) garatzea.
  - Jendaurreko emanaldi bat burutzeko oinarrizko betekizunak ezagutzea.
- Ikastetxe zein herri mailan:
  - Bertsolaritza sustatzea ikastetxean eta herrian.
  - Ikastetxeaz kanpo umeek jarraipena ematea zaletasun horri.
  - Euskararen erabilera bultzatzea.

## Zer lantzen da bertsolaritzaren bidez?

Bertsolaritzaren bidez lau arlo lantzen dira, eta arlo bakoitzaren baitan hainbat eduki sakontzen ditugu: jarrerazko, kontzeptuzko zein prozedurazko edukiak.

### 1. HIZKUNTZA

Euskara praktikatuz gozatzea. Hizkuntzarekin lotutako jarduera ludiko eta dinamikoen bidez esperientzia positiboak bizitzea. Diskurtsoak jarrera kritikoz aztertzea, testuaren ezaugarriak identifikatzea, diskurtsoak eraikitzea (ahoz zein idatziz), euskalkien aniztasunaz jabetzea, sentsibilitate estetikoa lantzea...

### 2. KULTURA

Bertsolaritza den kultur adierazpidearen oinarrizko ezagutza: bertsogintzak berezko dituen ezaugarriak (doinuak, errimak, neurriak, hoskidetasuna...), bertso saio eta bertsolariak, bertsoa osagai duten euskal ohiturak....

### 3. MUSIKA

Doinuen ondarea, entzute aktiboa, intonazioa eta igorpena, isiltasuna, abestiak eta bertso sortak jendaurrean interpretatzea...

### 4. TREBETASUN PERTSONALAK ETA SOZIALAK

Jendurrekotasuna, dialektika eta lankidetzeta, besteen lekuan jartzea, balioak, parekidetasuna, zentzu kritikoa, aniztasuna, sormena...



## *Zer eskaintzen du Elkartek?*

Bereziki Lehen Hezkuntzako 3. zikloari bideratuta dago, nahiz eta Lehen Hezkuntzako 2. zikloan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere eskaintzen den. Bertsolaritza klaseak ematen dira ikasturte osoan, astean saio bat horretarako baliatuz. Euskara ikasgaiaren barruan izan ohi da, eta ikastetxearekin adosten da ordutegia.

Bertsozale Elkarteko irakasleak bideratzen du ikasgelako dinamika, eta tutorea ere gelan izaten da. Hala, bi irakasleen artean aukera dute ikasturtean zehar egingo diren ekimenak adosteko eta proiektua ikasgelara egokitzeko.

Irakasle espezialistek bertsolaritzaren ezagutza sakona dute, eta hizkuntzari edota hezkuntzari lotutako titulazioak izateaz gain, formazio saioak jasotzen dituzte Bertsozale Elkartek antolatuta.

## *EKINTZA OSAGARRIAK*

Ikasgelako lana indartzeko eta ikasleak jendaurrean trebatzen hasteko, ekintza osagarriok egiteko aukera ere ematen zaie ikastetxeei.

### *BERTSO SAIOA*

Ikastetxeak aukera du, ikasturtean zehar, bere ikasleentzat bertso saioa antolatzeko. Ume askorentzat zuzenean bertso saio batean parte hartzen duten lehen aldia izan ohi da. Helburu nagusiak umeek saioaz gozatzea, entzute aktiboa lantzea eta bertsolaritzaren oinarriko ezagutza berenganatzea dira.

Bertsozale Elkartea arduratzen da bertsolariak lotu eta saioaren prestaketaz.

### *IKASTURTE AMAIERAKO JAIALDIA*

Ikasturte amaieran, gelan egindako lana plazaratzeko jaialdia izaten da. Ikasgela bakoitzeko haurrak oholtzara irten eta bere emanaldia eskaintzen dute. Emanaldia bertsolaritza klaseetan prestatzen da, jendaurrekotasuna lantzeko baliatuz.

Bertan, musikari baten laguntzarekin parte hartzaileek euskal abesti ezberdinak abesteko aukera izaten dute. Honetaz gain, bi bertsolarik hartzen dute parte eta ikasleei bat-bateko saioa ikusteko aukera ematen zaie.

Bertsozale Elkartearen eta udalaren arteko koordinazioa beharrezkoa izango da aretoa lotzeko eta jaialdiaren prestaketaz bertsolaritza irakaslea arduratuko da.



## KANTALDIA

Ikastetxeek aukera dute euskal kantuen transmisioari zuzendutako kantaldia antolatzeko. Musikari baten laguntzarekin, ikasleek euskal kantuak eta bertso sortak abesten dituzte, pantaila edo kantu liburuxkak baliatuz.

Bertsozale Elkarte arduratzen da musikaria lotzeaz eta kantaldiaren prestaketaz.

## IKASLEEN BERTSO BILDUMA: BILBERTSOAK

Ikasturteko osoko proiektuan parte hartzen duten ikastetxe guztien artean, ikasleek jarritako bertsoekin bilduma bat osatzen da eta, ikasturte amaieran, ikasle bakoitzari ematen zaio oroigarri gisa. Ikasgela bakoitzak bere bertso sorta prestatzen du, taldeko argazkiarekin batera bilduman agertzeko.

Bertsolaritza klaseetan prestatzen dira bildumarako bertsoak.

Bertsozale Elkarte arduratzen da bildumaren ekoizpen lanaz eta banaketaz.





*INFORMAZIO GEHIAGO*

Bizkaiko Bertsozale Elkartea

Zabale kalea 9, atzea

48200 Durango

Tel: 946812711

E-posta: [bizkaia.administrazioa@bertsozale.eus](mailto:bizkaia.administrazioa@bertsozale.eus)